

EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZ ATLASA

EHHA-KO SOINUDUN ARTXIBOA: ESKATZEN DUEN JOKABIDE ETIKOA

1997-11-21

*Izaskun Etxebeste,
EHHAko batzordekidea*

Euskal Herriko Hizkuntz Atlaserako material bilketa duela hamabi urte hasi zuen lantaldeak 1987. urtean eta azken grabaketak 1992.ean burutu ziren, jarduerarik sistematikoena hondarreko bost urteetan gauzatu bazen ere, lantaldea guztiz osatu zenean. Inkesta guztiak euren osotasunean 2400 zinta magnetikotan grabatu ziren 4500 ordu inguruko bilduma erateraino. Lekuan lekuko inkestak amaitzean, zinta hauek —oraintsu CD-ROMetara irauliak— bilakatu ziren gure oinarrizko lan-tresna EHHArako corpusa erdiesteraoan. Orain, Azkue Bibliotekaren esku dago soinudun material horren guztiaren zainketa eta babesa, eta baita izan daitezkeen kontsulten kudeaketa ere.

Ez dagokio Batzorde honi gordailuzaintzaren nondik-norako praktikoak zuzentzea (1) baina bai grabaketa horiek kontsultan eman aurretik zenbait ohar funtsezko aldarrikatzea, *ez baitira Bibliotekako beste edozein liburu bezalakoak* eta kontsulta arau bereziak izatera derrigortzen dutela uste baitugu (2). Zinten egiazko edukia sakon-sakonean inkestagileok bakarrik ezagutzen dugu eta eza-gutza horretan oinarriturik gure eskabidea arrazoitu eta egitasmotik kanpo den edonork erraz ulertzeko moduan azaltzea da txosten honen helburua.

Diogun bezala, grabaketen kontsultaren auzi honetan, edukiari buruzkoa da gure kezka nagusia: galdeketa gaien luze-zabaltasuna, ahozko jardunaren berariazko erlaxazioa, zenbait gai “labain”en tratamendua, oharkabean esanak... horiek guztiek gurutzatzen dituzte etengabe gure hitzorduak eta hori hala izaki, ez litzateke inoiz ahaztu behar azpimarratu nahi dugun lehen ideia nagusi eta garrantzizkoena: pertsonen jardunak daude hor, euren bizitzaz —eta inguruko eta herrikoenaz— gauza asko esaten dituztenak (batzuek besteak baino gehiago, noski) eta behin grabatu ostean, ez dugu inolako iragazkirik jarri ahal izan. Beraz, erraz ulertzen da zinta hauetara hurbiltzen den edonork jokabide

(1) Soinudun artxiboen kontserbazioan sortzen diren arazo tekniko eta juridikoak ez dira txosten honetan aztertzen.

(2) Ziurra da Bibliotekak idatzizko dokumentuen artean ere bereizketak egiten dituela eta ez dela berdin zaintzen erraz aurki daitezkeen aldizkari baten kontsulta eta adibidez, inkunable batena.

etiko batetik abiatuta egin behar duela bere egitekoa eta portaera horren zainketa eta bermea Bibliotekari dagokio, gure ustez.

Gure asmoa bi hitzetan azaldu ondoren, eta esaten duguna arrazoizkoa dela sinets dadin, zabalago oinarritu nahi dugu adierazitakoa.

1. BILKETA LANAREN INGURUAN JAKIN BEHARREKOAK

1.1. EHHA helburu

Euskal Herriko Hizkuntz Atlaserako grabatutako zintek ahozko euskara eta euskalkien lekukotasun zabala eta sistematikoa eskaintzen duten neurrian eta gorago azaldutako ordu kopuru eta hedaduraz osatuta daudenez, ez da zalantzarik, ondare baliozko eta estimagarria direla hizkuntza ezagutu eta ikertu nahi duen edonorentzat.

Jakin beharrekoa da, ordea, EHHako inkestagile taldea ez zela helburu horrekin abiatu, mikrofono bat pizten genuenean ez genuela buruan hizkuntz-ondarearen bilketa (ez horrela enuntziatuta behintzat), Hizkuntz Atlaseko proiektua baizik (3). Zehazkiago esateko, orduan proiektuaren helburu nagusizat ziren mapa linguistikoak genituen gogoan, eta beraien eraketa zuzenerako galdekizun luzearen bide estuak ibili behar genituen urratsez-urrats, gero mappek izango zuten hurrenkeran jauzi alaiegirik egin gabe.

Biltze lanetan aurrera joan ahala eta, zer esanik ez, datu-bilketa amaitu zenean, jabetu ginen eskuartean genuenaren balio handiaz. Esan nahi da, "ondare"aren ideia ez zela aprioristikoa, ez taldearentzat eta ez Euskaltzaindiarentzat (guri bestelakorik azaldu ez zitzaigun neurrian behintzat), eta galdekizunaren hezurretik kanpo zegoenak bigarren mailako garrantzia hartzen zuela inkestatan ari ginen bitartean. "A posteriori" ordea, transkribaketa garaian batik bat, jasotakoa berriz entzun eta mamitzean, begibistaraten zitzaizkigun gure fitxetan kavidarik ez zuten informazio albotaratuak, bai linguistikoak, bai beste kultura alorretakoak ere. Baina ordurako grabaketak eginak ziren, lantaldea ondorengo lan batzuetan murgilduta zegoen, eta ezin zen astirik galdu informazioa beste ardatz batzuen argitara berrantolatzen. Esanak esan eta joanak joan.

1.2. Inkestagintzaren ingurumariak: aurretiko baldintzak

Aurrean esandakoa hala izanik, EHHA helburu genuela aitortuz, zintak entzun nahi dituenak grabaketei buruz aurretik zenbait datu behar dituela uste dugu, bidean galduko ez bada.

(3) Ez gara izan beharko lukeenaz ari, hastapen hura benetan nola izan zen azaltzen baizik.

1.2.1. *Kanpoko baldintza: presa*

EHHArako inkesta guztiak denbora muga ahalik eta laburrenean egin behar ziren informazioa homogeneoa eta sinkronikoa izango bazen. Ezin genuen lana patxadaz hartu, monografia baterako hartzen den gisan, ez gai bakoitzearako lekukorik aukerakoena bilatzen (inkesta osoa lekuko bat edo birekin egin izan dugu gehienetan), ez grabaketa garaia nahi adina luzatzen. Inkesta garaian baldintza garrantzizko bat **presa** izan da. Herri bakoitzean emandako “media” 20 bat eguneko izango da, batzuetan gehixeago eta besteetan gutxixeago. Gure artean askotan erabilitako konparazioa izan da argazki batena: herri batera joan, ahalik eta “argazki” (hizkuntz argazki) txukunena atera eta alde egin dugula. Bat-bateko argazki baten ezaugarriak dituzte grabaketek.

Horretarako, aldez aurretik, lekukoa aukeratu behar genuen, ahal zela bakarra, bere borondatea geureganatu eta gero denbora horretan, galdekizuneko 3.000 galdera zehatzen ordainak jaso, lortutako konfiantza hori zapuztu gabe. Ez dugu, jira eta buelta, nahi adina astiz ibiltzerik izan. Horrek zintetan dagoena —eta, areago, ez dagoena— ulertzeko bidean jartzen du edonor.

1.2.2. *Grabaketa lana bera : magnetofonoa eta galdekizuna*

Inkesta guztiak grabatu egin behar zirenez, magnetofonoa bilakatzen zen lanerako ezinbesteko tresna: hala aurkeztu zitzaigun geroni eta hala aurkezten zitzaizen berriemaileei ere. Jakina da horrelako lanetan ibili den edonorentzat magnetofonoa ez dela oztopo nabarmena izaten haserako errezeloak gainditu ostean: haren presentzia erabat ahazten ez bada ere, bigarren mailako arazo bilakatzen da lekukoentzat, galdetzen zaienari txukun erantzun nahiak beste pentsamendu batzuetan murgilarazten baititu. Hori hala izanik bi ahotako “labana” suertatzen da bere jarduna jasoa izaten ari den horrentzat: mikroa aurrean duela konturatzen denetan erantzunak “edertzeko” joera har bailezake bere benetako mintzotik urrunduz, eta ohartzen ez denetan berriz, bere hitzak haizeak eramango balitu bezala lasai eta patxada osoz ari baitaiteke hizketan, bazkalosteko tertulia gozoan dagoela uste izanez. Eta azken joera honetaz jabetzea nahi genuke batik bat, zeren, gero gehiago zabalduko dugun bezala, grabaketak egin ziren bezalaxe, inolako ukitu edo konponketarik gabe artxibatu baitira, inkesta saio osoaren luze-zabalean.

Lekukoa —gure langai nagusia, hala esan badaiteke— hautatu eta grabaketa lanari ekiten genion, galdekizun luzea gidaritzat hartuta. Hori zen mahai gainean jartzen genuen bigarren lan tresna objektiboa. EHHAk mapak erakitze bidean eskatzen zitzaigun ia gauza bakarra zera zen horrenbestez: galdera horien erantzun zuzenak ziren hitzak mugagabean eta garbi ahoskatuta lortzea, beren esanahi ahalik eta zehatzenarekin. Eta inkesta moldea erabat baldintzatan du helburu nagusi horrek: galderak bata bestearen atzetik egiten dira, hiz-

ketaren jario naturala behin eta berriz etenaz, hitz desberdinen arteko ñabardurak ongi zehazteko eta eraberean beste herrietan bilduko zenarekin homologagarria izango zen informazioa jasotzeko. Azken puntu honek eskatzen zuen bildutako hitzak mugagabeen lortzea, horretarako guk galdetutakoari erantzun zuzena(k) ematea nahikoa ez balitz bezala, berriro galdera bereziak egin behar genizkion lekukoari, hitz hori testuinguru jakin batean jarraziz.

Horrek guztiak ematen die gure inkestei *kolore* berezi bat, inkestak beste helburu batekin egin izan balira alda zitekeena, baina guk nahi genuen modu zehatzean informazioa grabatzeko ezin saihestuzkoa gertatu zitzaiguna.

1.3. Zinten benetako edukia: ez hitz hutsak

Ingurumariak aurkeztu ondoren, gatozen gure kezkaen mamira. Guztira 4500 ordu grabatu badira, begibistakoa da Atlasak aurretiaz eskatzen zituen helburuak arras gainditu direla eta ez direla hitz hutsak bere lehorrean erdietsi. Horien inguruan sortutako azalpenak eta gogoetak ere hor joan dira, hizketan ari zirenean ez baikenuen ia inoiz mikroa mozten. Denborak edo galdeketa atzerapenak larritzen ez gintuen bitartean, eta lekukoa emankorra bazen, lasai uzten genion bere azalpenetan, hizkuntz material osagarria suertatzen zelako guretzat eta garrantzia etnografiko edo kulturala ere bazuelako bere esanak. Gero, inkestak papereratzeko garaian josiko genituen guk adabakiak, pasako genuen galbahea, eta EHHArako balio zuena zegokion lekuan transkribatuko genuen, eta hortaz kanpokoa zintatan geratzen zen. Hau da, zintak, gure lana izango zenaren borradore gisan erabiltzen genituen: inkestetan papera erabili beharrean grabaketak erabiltzen genituenez, hauek gure zirriborroak ordezkatzuten zituzten eta gero txukundu eta antolatu gabe ez dira edozein moduz aurkeztekoak. Nolabait esateko, hor dagoen informazioa "brutoan" dago, leundu gabe, zizelkatzekoa.

Batetik brutoan eta bestetik, ondare izateko bokaziorik gabe osatua, lehen azaldu dugun bezala, atzetik elaboraketa baten beharrean geratzen dena. Eta mezu hori helarazten genien lekukoei ere, lehen egunetako etengabeko galderei erantzutean: zergatik, nola, eta, batez ere, lanean zertarako ari ginen galdetzen ziguten behin eta berriz. Bazekiten bere lana nolabait argitaratzekoa zela ("oi geo eskribitu ingo ez, ez?", "librua ingo ezue gero au denakin?" nahi adina esaldi horrelako dago zintetan zehar), baina esaten zuten guzia argitaragai zela inondik ere ez.

Nik uste ez dugula gezur handirik esaten gure lekukoek bere lana idurikatzean zerbait idatzia ikusten dutela esaten badugu: "librua noizko?" izaten da galdera oraindik ere inoiz topatzen ditugunean. Inguruko herriekiko hitzekin alderatuta agertuko lirakeen hitz-zerrendak idurikatzen dituztelakoan nago: Hernanin *ogiya* baina Elduainen *ogie*, Donostian *zan* baina Oiartzunen *zen*, hemen *ganbela* eta beste horretan *majera*. Horrelako zerbait.

Jakitun ziren, ikusten baitzuten, beti grabatzen ari ginela baina ohartzen ziren, aldi berean, guk luzatzen genien galderaren inguruan egiten genuela indar eta eginahal handiena, hitzen esanahi eta erreferenteak zehazten, eta mugagabea aterarazten. Ondoren suerta zitezkeen elkarrizketa edo bakarrizketak hitzaren esanahia zehazteko baliotik urruntzen ziren heinean traszendentziarik gabeko hitz hutsalak ziren, bere eta gure arteko kontuak: “oi gero kenduko ezu zuk”, “zuk gero moldatu nik esandakuak”. Ordu luzeetan grabatzen ari ginela, azkenerako ia gu ere magnetofonoa aurrean genuela batzuetan ahazten bazitzaigun, ez gara gai neurtzeko teknikarekiko beste harreman batzuk dituenak zenbatetaraino duen minutuero grabatzen ari zaionaren kontzientzia. Gertatu zaigu bakarren batek lazkeria handi xamarra bota duela irudituta eta “oi etzun ba onek (mikroak) jasoko noski” esatea ere, magnetofoiak termostato bereziren bat zuelakoan.

Horiek guztiak kontutan hartu behar ditu EHHAraiko grabatutako ordu guztien aurrean jartzen denak. Hor esaten diren gauza asko eta asko ez direla nahitara erdietsiak, konfiantza giro baten babesean topatuak baizik, eta hala izanik, askotan *material delikatu*a osatzen dutela (4).

2. JOKABIDE ETIKOA DATU-BILKETAN; ZENTZU ETIKOAREN ESKABIDEA DATUEN ERABILERAN

2.1. Jokabide etikoa datu-bilketan

EHHAraiko prestatutako galdekizuna ikusia duenak jakingo du honez gero lekukoekin jorratu behar genituen gaiek zenbat arlo desberdin ukitzen zituzten. Lehen esandako 3000 galdera horien erantzunetan mundu oso baten isla dago: izadia eta bere legeak euskarak hitzetan nola antolatua dituen sumatzen da eta pertsonen arteko giza-harreman sozialek zuten araudi estua eta etxe barruko familia-harremanen kode are estuagoen berriak jasotzen dira. Jendearen bizitzari horren hertsiki loturikoak bildu ahal izateko tentuz jokatu beharra dago: galdetu beharrekoak galdetu egin behar dituzu, eta giro ahalik eta lasaienean galdetzeko konfiantza eman behar diozu berriemalari baina bestetik ez duzu zapuztu behar, ez diozu emandako konfiantza ezertxogatik ere kolokan izan dezan utzi behar. Bere borondateak agintzen du beti, bai zure berriemaile izan ala ez erabakitzean eta baita zerbait esan ala esan ez hautatzen duenean ere. Gizabanakoa eta gizalegea dira nagusi.

Bestela lortzea ezinezko izanik, inkesta garaian sortutako konfiantza giroaren emaitza dira galdekizuneko gai irristakor eta *tabuen* ordainak: muga

(4) Inkesten osotasuna ordu luzeetan emandako elkarrizketak osatzean “es muy probable que se desarrolle una relación de confianza, en la cual el participante en la investigación da por suelta la observación del carácter confidencial, aunque esto no se haya prometido” (Cook, 343 orr.).

kontuak direla eta auzoen arteko liskar luzeak, urbide eta elizbideen publikotasuna, sexu gaiak, haur-galtzeak, ixilkako ezkontzak, ezkontza tratuak, erailketak, nork bere burua hiltzeak, sineskerak, sorgin famak e.a. Hitzien esanahia zehaztera behartuta, adibide hurbilekin ematen dituzte maiz azalpenak, kontakizun batek beste ezerk baino argi gehiago ematen duela jakinik, edo esaten ari direnaren bermea errealitatearen puska bat aurkezteak ematen duela kontzertuta.

Berriemaileak horiek guztiak bere terrenoan esaten ditu, bere etxean edo gertu, ia begibistan ditu adierazten ari denaren eskenatokiak, eta horrek erraztu egiten dio zenbait gauzaren kontaketa. Gehienetan, gainera, *guri* inkestagileoi bakarrik esaten ari zaizkigula uste izateko *arriskua* du grabagailua martxan dela erdi-ahaztean.

Egoera horren aurrean inkestagilearen jokabide etikoak garbia izan behar du; bere lan iturria ez dira liburuak, pertsonak baizik. Guretzat narrazio anonimoak dira, aurpegi jakinik gabeko pertsonaiadunak baina beretzat garrantzia afektiboa dute, gehiago edo gutxiago, hurbiltasunagatik. Informazio gehiago ateratzeko ez dago hor azerikeria eta engainutan ibiltzerik, ez eta euskarari buruzko jakitatearen izenean ere (5).

2.2. Berriemailearen jardunaren publikotasunaz

Honaino iritsita berriz gogorarazi beharra dago 1.3. puntuan luze azaldu duguna. Guri esandakoaren arabera zera uste genuela: paperaren ordeztintak erabiltzea lan-tresna egokiagoa izan genezan egindako hautua zela, gero informazioa papereratzean zintetan zegoenari beharrezko iragazkia jarriko geniola eta datuak elaboratzean testu bat publikoratu ala ez erabakitzeke giltza gure eskuetan izango zela. Ez dugu esaterik berriemaileak esaten zuen hura erabat publiko izango zela zinez jakin izan balu, zenbateraino zentsuratuko zukeen bere burua. Seguru asko, desberdin jokatuko genukeen guztiok ere.

Hainbeste ordutan jardun ondoren, ez dugu erraza zer bildu dugun zehazki gogoan izaten. Inkestagile guztiak gara gai halako pasarte, halako aitortza gogoratzeko, gure gogoia edo harridura une horretan astindu zituelako. Ziur dakiguna zera da: badirela pasarte "delikatuak", kontu gordin samarrak, izen propioak e.a eta horiek babestu beharrekoak direla nola edo hala (6).

(5) Bi eskubideren artean jokatu behar du ikerlariak: " el derecho de la ciencia y de la sociedad a inquirir y conocer (y) el derecho del individuo participante en la investigación a conservar su dignidad, intimidad y autodeterminación" (Cook, 324).

(6) Cook-ek, giza-harremanen ikerketan erabiltzen diren zalantzako teknika zenbaitek eragindako galdera etikoaren artean, intimitatearen inbasioa aipatzen du eta lortutako datuak zabaltzeak pertsonari lekarzkiokkeen kalteez ari da: "(puede vulnerarse) el derecho que todos poseemos a que no conste en público información personal sobre asuntos privados, y a determinar por nosotros mismos qué parte de nuestras ciencias, actos y atributos personales deseamos desvelar" (Cook,

Gure lana, batik-bat, herri txikietan garatu da, guztiek elkar ezagutzen duten lekuetan, eta halako, kanpotar bati zenbait gauza kontatzen aritu izan zaiola gaizki har daiteke, gizarte lege estuek agintzen duten parajeetan.

Zenbait oinordekori ere, familiako supean gorde ohi direnak bere ama edo aitona ateratu dituela jakiteak lotsa eragin diezaioke, are gehiago, edonori entzutera emango zaizkiola jakiteak. Horregatik diogu nolabaiteko babes neurriak ezartzea beharrezko deritzogula.

Azkenik, atzeko atletik eta lotsatuxe bada ere, inkestagileon jarrerari buruz ere bi hitz esan gabe ezin utzi. Ez dakigu beti ongi ulertuak izango diren gure *teknikak*, maiz *bitxiak* baina askotan ez gaituzte leku ederrenean paratzen. Gai bati buruz emandako azalpenarekin konforme ez baginen, askotan tonto plan-tak egin beharrean aurkitzen ginen, ezer ulertu ez bagenu bezala, argibide zabalago eta joriagoak lekukoari emanarazteko; jarrera artifizial nabarmenak erakusten genituen beste askotan, gero zintak bere inguruetik kanpo entzutean, are nabarmenago diruditenak; lekuz kanpoko barre eta barre algarak... berrie-maileen duintasuna ez ezik, inkestagileona begiratzen ere jakin beharko luke zinten erabiltzaileak.

2.3. “Zentzu etikoa” zinten kontsultatzaile edo erabiltzaileak

Puntu honetan laburbiltzen da EHHA.eko batzordekideok adierazi nahi genukeen eskabidearen muina eta honaino azalduko guztiaren arrazoa: 2400 zinten edukia modu txukun eta erakusgarrian jartzeko astirik ez dugunez eta beraien kontsulta debekatzeko ezinezkoa eta burugabea denez (7), material horretara hurreratzen denaren “zentzu etikoari” egiten diogu dei inkestagileak esfortzuz lortutako konfiantza giroa urra ez dezan. Jakin behar du grabaketa garaian sortutako konfiantza giro hori sumatzen, horrek erraztutako jardun lasaia Atlasak derrigortutakoetatik bereizten, eta inguru horretatik sortutako datuak ez zabarki baliatzen. Lekukoa kaltetu dezakeen edozer baztertu behar du bere lanerako ongi badatorkio ere.

310. orr). Adibideen artean, erlazio afektiboak, status ekonomikoa, sinesmenak, iritzi politikoak... zerrendatzen ditu, guzti-guztiak gure inkestetan zehar barra-barra azaltzen direnak.

Horiek zabaltzean partehartzaileak izan litzakeen kostuen artean: “afrentas a la dignidad, ansiedad, vergüenza, desconcierto, dudas, pérdida de confianza en las relaciones sociales, pérdida de autonomía y autodeterminación, y reducción del autorespeto” (Cook, 326 orr.).

(7) Ikus horri buruz zer dioten FAMT-en eratzzaileek: “Il nous semble donc du devoir des phonothèques de favoriser cette démarche en incitant collecteurs et informateurs à autoriser cette copie. A noter toutefois qu’il est possible de réaliser des copies de consultation différentes des originaux si certains passages sont confidentiels” (azpimarra gurea).

Hor bertan, aurreraxeago dioenez, Frantziako Estatu osoa hartzen duen horrelako erakunde batek oraindik ez die itenbiderik eman soinudun dokumentuen kontsultak sortarazten dituen arazo iuridiko eta etikoei (1992.eko lan bat da!). Zerrendatu egiten ditu: “... propriété des documents, confidentialité des informations, contrat (interprète ou informateur), autorisation pour utilisation commerciale ou plus publique du document...”. (PERENNOU: 117 orr.).

Horretarako aski du guztioi sen onak iradokitzen dizkigun araei kasu egitea, berriematea bizi den gizarteko legeak beti gogoan izanez jokatzeari, edo, errazago oraindik, kontsultatzaileak berak bere ahotik atera eta edonork jakitea nahiko ez lukeenik, ez argitaratzea.

Intimitatea eta pribazitatea batetik eta bestetik publikotasuna lehian ikusten dituenean beti lehenbizikoaren alde egin behar duela garbi izan dezan eskatzen diogu.

3. AZKUE BIBLIOTEKA DA ONDARE HORREN GORDAILU ETA KUDEATZAILE

Fonotekaren eskuetan utzitako fondo hauen erabileraz dugun iritzia ematea geratzen zaigu. EHHA batzordearentzat —eta batez ere, inkestagileontzat— oso garrantzizkoa da Azkue Bibliotekako zuzendaritzak guk txosten honen bidez bidalitako mezua barneratzea.

Ehundaka zinta eta CD-ROM beren herri-izen eta kodeekin markatuta ikusteak ez du erakusten haien baitan gordetzen dena. Herri bakoitzean galdetikuzuna goitik-behera pasatu dela ezaguna da baina horretaz aparte, itsu bilakatzen da gure bilketa-lana. Espero dugu, hemen emandako argibideen eskutik, lehen itsu zirenak orain zerbait bederen argiztatu izana, eta edukiak ere arreta merezi duela ulertuz, ardura hori ere fondo honen kudeaketan sartzeko sentsibilitatea azaltzea. Hitz bitan esateko, fondo berezia denez, tratamendu berezia beharko duela eta ez soinuazko artxiboa delako bakarrik, barruan gizabanakoen gora-beherak doazelako baizik, inolako galbahetik pasatu gabeak, eta hori liburu xahar baten paper xaharrak bezain delikatua da, edonoren eskutan, kontrol haundiegirik gabe utz ez daitekeena.

Kopia eskaririk balego, berriz, are zorrotzago jokatu beharko litzateke. Erabilera pribatua eta publikoa bereizi beharra azpimarratzen dute gai hau zuzenean aztertu dutenek (8); beste batzuk, pasarte konfidentzialak babestu egin behar direla eta, orijinalak ez baina kontsulta-kopia bereziak eskaintzearen aldeko azaltzen dira (9). EHHA batzordeak arrisku hauen gainean gogoeta-dei bat luzatu nahi luke, behin kopia eskuratuz gero erabilera pribatu baterako bakarrik izango dela ziurtatzea oso zail izango zaigulakoan.

(8) Iuridikoki harturik frantses legediaren argitara aztertzen du Cordereix-ek: "Du point de vue de la gestion d'une phonothèque (...) soumettre toute demande de copie par un usager à l'autorisation préalable des ayants droit (lehenago dioenez, biltzailea eta berriematea dira eskubide iuridiko hauen jabeak), les termes de cette autorisation pouvant induire des modalités différentes suivant que la copie est à usage privé ou public" (Cordereix: 142 orr.).

(9) "A noter toutefois qu'il est possible de réaliser des copies de consultation différentes des originaux si certains passages sont confidentiels" (Perennou: 117 orr.).

4. ERABILITAKO BIBLIOGRAFIA

- COOK, Stuart W.: "Temas éticos en la realización de investigación en relaciones sociales", in *Métodos de investigación en las relaciones sociales*, Madrid, RIALP, 1980 (9. de.) 277-344 orr.
- CORDEREIX, Pascal: "Conserver. Eléments de gestion d'une phonothèque", in Denis LABORDE, éditeur, *Tout un monde de musiques*, L'Harmattan, 1996, Paris, 123-173 orr.
- PERENNOU, Véronique et NEGRE-FONTANEL, Frédérique: "La fédération des associations de musique traditionnelle (FAMT)", in *Sonorités*, 28-29 zenb., 1992, 109-120 orr.